

- ❑ BI-633 errepidean, honako bide-zati hauetan jaitsi behar da abiadura:
 - KP: 33,05 – 33,75; San Lorenzo udalerriaren inguruan.
 - KP: 34,15 – 34,45; aurrekoaren jarraian dagoen bide-zatia.
 - KP: 35,5 – 37,05; Osa udalerriaren inguruan.
- ❑ BI-635 errepidean, abiadura bi bide-zatitan jaitsi behar da; biak ere Amorebietan inguruan.
- ❑ BI-636an, ostera, abiadura jaitsi beharreko bide-zati bakarra dago, Balmaseda eta Burgosko mugaren artean.

4.4.7 Zirkulazio-jarraitutasuna

Errepide-sare nagusiko errepide guztietako zirkulazioan etenak daude.

5. 1999-2005 ALDIAN, PLANAREN XEDE DEN SAREAN EGINDAKO LANAK EDO EGITEN ARI ZIRENAK

Euskadiko Errepideen Bigarren Plan Orokorraren Berrikuspenari dagozkion jarduerak egiten hasi aurretik, garrantzitsua da Errepideen Bigarren Planean aurreikusitako jarduera eta ekimen guztien berrikuspen zehatza egitea, bai azken urteetan egin direnak, bai egun egiten ari direnak.

Lurralde historikoak banan-banan aztertuz, **honako hauek dira planaren xede den sarean 1999-2005 aldian egindako jarduera nagusiak:**

❑ Araba

Duten garrantzia dela-eta, Vitoria-Gasteiz eta Eibar arteko autobideko lanak aipatu behar dira, Lukoren eta Gipuzkoako mugaren artean; lan horiek amaitzen direnean, Euskadiko errepide-sareko zirkulazioa berregituratuko du.

Era berean, zenbait errepidetan egin diren egokitzapenak eta hobekuntzak aipatu behar dira: N-I errepidean (Langraitzeko sarbidea N-I errepidetik, A-2622 saihebidetia), A-132an (Birgara – Maeztu – Santikurutze Kanpezu – Nafarroako muga), A-624an (Menagarai – Artziniega eta saihebidetia, A-2604ko elkargunean) eta A-625ean (Luiandoko saihebidetia eta A-3622ko loturaren artean). Amurrioko eta Miñano Mayorreko ekialdeko saihebidetia osatzen dute aldi horretan egindako lan nagusien zerrenda.

Aurrekoez gain, edukiera handitzeko jarduerak egin dira N-I errepidean (N-102aren lotura hobetu eta A-4301 eta A-4305 errepideekin –Rivaguda eta Rivabellosarako sarbideak– maila bera ez duen lotura

egin) eta N-240 errepidean (Gamarra eta Miñano artekoa); halaber, N-102 errepideko sarbideak berrantolatu eta ezkereranzko biraketak kendu dira (KP: 343,49 – 348,14).

❑ Bizkaia

Duten garrantzia dela-eta, Txorierriko korridorea amaitzeko lanak azpimarratu behar dira; izan ere, hegoaldeko bide antolamenduaren edo A-8 autobidearen edukiera handiko lehenengo ibilbide alternatiboa da. Horrez gain, N-637 errepidearen ihesbidetia ere balio du, bai eta zeharkatzen dituen udalerrietako hiri-guneak arintzeko ere (batez ere, Zamudion eta Lezaman). Oro har, korridorearen ekialdeko zatia (Erletxeta parean) lotura zuzena du A-8 autobidearekin; hegoaldeko zatia, halaber, A-8arekin lotzen da, Errontegiko zubiaren bidez (Bizkaiko golkoaren kostaldearen noranzkoa du, baita alderantzizkoa ere).

Era berean, Artxandako tuneletako lanak aipatu behar dira, Bilboko zenbait sarbideetako zirkulazioa berrantolatu eta Bizkaiko hiriburuaren hiri-hedapena bultzatzen baitu. Horrez gain, Asuako ibarrera, Loiuko aireportura eta Txorierriko korridore berrira iristeko lotura hobeak eskaintzen ditu. Ibarrekolandako loturaren eta Deustuko behe saihebidetia loturaren bidez, ostera, BI-3704 errepidea (Deusto – Enekuri – Asua) Euskaldunako zubiarekin lotu nahi da, horrela Bilboko erdigunearekin konexio zuzena izango baitu.

Azterketa-aldian, ekialdeko saihebidetia lanak ere egin dira, Orueta eta Ibarsusi arteko bide-zatia, zehazki. Bilbao inguratzeko aukera ematen duen saihebidetia horretako lanak amaitzean, Txurdinaga, Otxarkoaga eta Begoñako agintazio-zirkulazioa arinduko da.

Ballontiko ardatzaren helburua ezkeraldeko auzoen mugikortasuna hobetzea da, eta, horretarako, auzo horietako tokiko bideak nahiz Balparda eta Nocedal artekoak A-8arekin lotu behar dira; hori dela-eta, hirian sartzeko azpiegitura berria egin da, eta, horrez gain, Balbardako lotura birmoldatu da.

Bilboren eta Bizkaiko golkoaren kostaldearen arteko edukiera handiko zirkulazioa hazi egin daitekeela-eta, A-8 autobidearen edukiera handitzearen alde egin da, eta, beraz, hainbat jarduera egin dira: Gurutzetako lotura aldatzea eta portuko loturaren eta Gallartaren artean hirugarren erreia egitea, besteak beste.

A-8 eta A-68 autobideak edukiera handiko bide batez (Zaratamo – Arrigorriaga autobia) lotzeko, bide-zati horretan A-68 autobidearekin lotzeko zeuden sarbideak birmoldatu dira; bide horri esker, hain zuzen, ibilbide luzeko zirkulazioa eta tokikoa bide beretik ibiltzeak sortzen dituen arazoak konpondu ahal izango dira.

Amaitzeko, 1999-2005 aldian egin diren hainbat jardueren artean, Iurretako eta Zeanuriko saihasbideetako lanak nabarmendu behar dira, bai eta BI-623 errepideko “Durango – Izurtza – Mañaria” bide-zatiko sarbideen berrantolaketa ere.

❑ **Gipuzkoa**

Aztertutako aldian, besteak beste, honako lan hauek egin dira: Vitoria-Gasteiz – Eibar autobideko lanak Arrasate, Bergara hegoaldea eta Maltzaga arteko bide-zatian (A-8ko lotura); N-I errepidearen eta A-8aren arteko konexioa (Aritzeta eta Lasarte artean); Bergarako hego-ekialdeko saihasbidea; eta Ormaiztegi eta Zumarraga ekialdearen arteko bide-zatiko lanak (N-636an), bai eta Hernaniko hego-ekialdeko saihasbidearen lehenengo fasea ere (GI-131).

Halaber, bi errepideko edukiera handitzeko lanak aipatu behar dira: N-I errepidean, Etxegarateko mendatean bigarren galtzada bat egitea eta Idiazabalgo saihasbidea bikoiztea, eta, A-8 autobidean, Oiartzun eta Irungo Benten artean hirugarren erreia egitea. Horrez gain, GI-627 eta N-634 errepideak egokitu egin dira; bata, Epele eta San Prudentzio artean eta GI-2630 errepidearen elkargunean, eta, bestea, Azitain eta Maltzaga artean. Errenteriako saihasbidearen lehenengo fasea da 1999-2005 aldian egin den beste lan garrantzitsuetako bat; lan garrantzitsu horiez gain, ordea, bide-segurtasuna hobetu (Itziarko gaina – Elgoibar) eta elkarguneak berrantolatu dira.

Planaren xede den sarean 2005ean egiten ari ziren lanei dagokienez, honako hau adierazi behar da:

❑ **Araba**

Vitoria-Gasteiz – Eibar autobideko lanak (Etxebarri eta Gipuzkoako mugaren artean) 2008ean amaitzea aurreikusi da.

Era berean, N-I errepidean, edukiera handitzeko eta loturak berrantolatzeko hainbat jarduera egin ziren; zehazki, Jundizko loturaren aldaketak (2006an amaitu zuten). Bestalde, A-124 errepidean, Laguardiako zeharbidearen azken bide-zatia egokitzen ari ziren, A-4202 errepidearen elkargunera arte.

❑ **Bizkaia**

BI-636 errepidearen korridoreko edukiera handiko honako bide hauetako lanak egiten ari ziren: Kastresana – Alonsotegi (Kastrexana – Arbuio/Alonsotegiko saihasbidea bide-zatian) eta Alonsotegi – Sodupe (Arbuio – Sodupe bide zatian); horrez gain, galtzada bikoiztu zuten Artxube – Zalla bide-zatian.

Era berean, Ballontiko ardatzeko lanak eta Markonzaga – Portugaleteko eta Axpe – Urbinagako hiri-sarbideak egiten jarraitu zuten.

A-8aren edukiera handitzeko lanei dagokienez, hirugarren erreia jartzeko lanak egiten ari ziren, honako bide-zati hauetan: Basauri – Irubide, Bengoetxe – Galdakao, Urgoiti (El Gallo) – Erletxeta – Amorebieta eta Monitora – Iurreta


Halaber, BI-637 errepidearen edukiera handitzen ari ziren (Mimenaga – Sopelana bikoizketa).


Jarduera horiez gain, beste batzuk ere egin ziren; zehazki, A-8ko tunelen segurtasuna hobetzeko (Zaldibar), Artea – Areatza bide-zatiko sarbideak berrantolatzeko eta EuskoTreneko pasagune bat kentzeko (azken biak N-240 errepidean).

❑ **Gipuzkoa**

Urumeako autobideko lanak indarrean zeuden (Donostia – Martutene – Hernani bide-zatian), bai eta Vitoria-Gasteiz – Eibar autobideko lanak (Arabako muga – Eskoriatza – Arrasate bide-zatian) eta Pasaiaiko saihasbideko lanak (N-I errepidean) nahiz N-634aren eta GI-638aren elkargunearen hobekuntza-lanak ere.

Jarraian, planaren xede den sarean, 1999-2005 aldian egin ziren edo 2005ean egiten ari ziren lanen planoak erantsi dira, bai eta horiek lurralde historikoaren arabera duten lotura ere.





1999-2005- ALDIAN, PLANAREN XEDE DEN SAREAN EGINDAKO LANAK

LURRALDE HISTORIKOA: ARABA

Errepidea	Jarduera	Luzera (km)	Proiektu- abiadura (km/h)	Zeharkako sekzioak (m)	Lanak amaitzeko epea	Oharrak
PROGRAMA: LAN NAGUSIA						
AZPIPROGRAMA: AZPIEGITURA BERRIAK						
A-1	Vitoria-Gasteiz – Eibar autobidea. Etxabarri – Luko bide-zatia. Etxabarriko lotura (partziala)	-	120	2x7,5 / 11	2002	
AZPIPROGRAMA: EDUKIERA HANDITZEA						
N-I	A-4304 eta A-4305 (Rivaguda eta Rivabellosako sarbideak) errepideekin maila bera ez duen lotura. II. fasea: bide-adarrak, bideak eta gaineko pasaguneak	-	-	-	1999	
N-I	N-102ren lotura hobetzea eta 339,48 eta 342,28 KPak egokitzea	2,80	100 – 120	2X11,25 / 14,75	2003	
N-240	Bidea egokitzea eta erdibitzailea eraikitzea. Gamarra – Miñano bide-zatia	4,22	100	2x7 / 10,5	2003	
AZPIPROGRAMA: SARBIDEEN BERRANTOLAKETA ETA KONTROLA						
N-102	Bidea egokitzea, ezkerrean zoko biraketak kentzea eta 343,49 – 348,14 KPetako sarbideak berrantolatzea.	-	100 – 120	-	2002	
PROGRAMA: EGOKITZAPENAK						
AZPIPROGRAMA: EGOKITZAPENAK						
N-I eta A-2622	Langraitzerako sarbidea N-I errepidetik: A-2622ko saihsarbidea	2,00	80	7 / 10	2002	
A-132	Bidea egokitzea, bazterbideak eraikitzea eta bide-zorua gogortzea, Birgara Goienetik Maeztura arte	2,48	80	7 / 12	1999	
A-132	Bidea egokitzea eta bazterbideak eraikitzea, Maeztu eta Santikurutze Kanpezu artean. Antioñana – A-126 bide-zatia	4,70	80	7 / 10	2002	
A-132	Bidea egokitzea eta bazterbideak eraikitzea. A-126 – A-2128 bide-zatia	1,17	80	7 / 10	2001	
A-132	Bidea egokitzea Santikurutze Kanpezuren eta Nafarroako mugaren artean	2,73	80	7 / 10	2001	
A-624	Menagaraitik Artziniegara arteko trazadura egokitzea eta hobetzea, eta A-2604aren elkargunean saihsarbidea jartzea	5,40	70	7 / 10	1999	
A-625	Bidea egokitzea Luiandoko saihsarbidearen amaieraren eta 11,78 KParen artean eta A-3622 errepidearekin lotura egitea	1,40	90	7 / 11	1999	

Errepidea	Jarduera	Luzera (km)	Proiektu- abiadura (km/h)	Zeharkako sekzioak (m)	Lanak amaitzeko epea	Oharrak
AZPIPROGRAMA: ELKARGUNEEN BERRANTOLAKETA ETA SARBIDEEN KONTROLA						
N-104	Eskalmendira doan A-2134 errepidearen elkargunea hobetzea	2,32	-	-	1999	
PROGRAMA: HIRI BARNEKO SAIHESBIDEAK						
AZPIPROGRAMA: HIRI BARNEKO SAIHESBIDEAK						
N-240	Miñano Mayorreko saihesbidea	2,32	100	2x7 / 10,5	2003	
A-625	Amurrioko ekialdeko saihesbidea	4,40	80	7 / 10	2001	

Iturria: geuk egina, foru aldundien datuak oinarri hartuta.

2005EAN, PLANAREN XEDE DEN SAREAN EGITEN ARI ZIREN LANAK

LURRALDE HISTORIKOA: ARABA

Errepidea	Jarduera	Luzera (km)	Proiektu- abiadura (km/h)	Zeharkako sekzioak (m)	Lanak amaitzeko epea	Oharrak
PROGRAMA: LAN NAGUSIA						
AZPIPROGRAMA: AZPIEGITURA BERRIAK						
A-1	Vitoria-Gasteiz – Eibar autobidea. Luko – Gipuzkoako muga bide-zatia	7,33	120	2x7,5 / 11	2008	
A-1	Vitoria-Gasteiz – Eibar autobidea. Etxabarri – Luko bide-zatia	7,00	120	2x7,5 / 11	2008	
N-I	N-I errepideak Condado de Treviñotik pasatzean duen trazadura aldatzea (Lapueblako saihesbidea barne)	6,70	100 – 120	2X11,25 / 14,75	2006	Finantzaketa Sustapen Ministerioari dagokio. Foru aldundiari dagokion aurrekontua N-I errepidearen 336,2 eta 339,2 KPen arteko bide-zatiaren egokitzapenean dago sartuta
AZPIPROGRAMA: EDUKIERA HANDITZEA						
N-I	Bidea egokitzea, bazterbideak egitea eta ezkerrenazko biraketak kentzea (KP: 321,7 – 329,5)	4,40	100	2x7,5 / 11	-	Lan bateratua
N-I	Bidea egokitzea, bazterbideak egitea eta ezkerrenazko biraketak kentzea (KP: 321,7 – 329,5)	3,40	100 – 120	2X11,25 / 14,75	-	Lan bateratua
N-I	Bidea egokitzea, bazterbideak egitea eta ezkerrenazko biraketak kentzea (KP: 336,2 – 339,2)	3,00	100 – 120	2X11,25 / 14,75	2006	Aurreko hirurtekoan partzialki gauzatu den lan bateratua
AZPIPROGRAMA: LOTURAK EGITEA ETA/EDO BERRANTOLATZEA						
N-I	Jundizko lotura aldatzea	-	-	-	2006	Foru Aldundiaren eta Vitoria-Gasteizko Udalaren arteko hitzarmena
PROGRAMA: EGOKITZAPENAK						
AZPIPROGRAMA: EGOKITZAPENAK						
A-124	Laguardiako zeharbidearen azken zatiaren (A-3216ren elkarg.) eta A-4202 elkargunearen arteko zatia egokitzea. Laguardiako zeharbidearen azken zatian (A-3216 elkarg.) Cuesta de Castejoneseke lanak hastea.	1,83	80	7 / 10	2006	

Iturria: geuk egina, foru aldundien datuak oinarri hartuta.

1999-2005- ALDIAN, PLANAREN XEDE DEN SAREAN EGINDAKO LANAK

LURRALDE HISTORIKOA: BIZKAIA

Errepidea	Jarduera	Luzera (km)	Proiektu- abiadura (km/h)	Zeharkako sekzioak (m)	Lanak amaitzeko epea	Oharrak
PROGRAMA: LAN NAGUSIA						
AZPIPROGRAMA: AZPIEGITURA BERRIAK						
BI-604	Hiri-sarbidea. Ibarrekolanda – Deustuko behe saihesbidea	0,64	80	2x7 / 10,5 2x10,5 / 14	2003	
N-637	Txorierriko autobia. Derio – Larrabetzu bide-zatia	8,92	100	2x7 / 10,5 2x10,5 / 14	2003	
N-637	Txorierriko autobia. Larrabetzu – Erletxeta bide-zatia	1,38	100	2x7 / 10,5 2x10,5 / 14	2003	
Ekialdeko saihesbidea	Hiri-ingurabidea. Orueta – Ibarsusi	1,96	80	2x7 / 10,5	2000	
BI-636	Sodupe – Artxube autobia	3,00	80	7 / 12	2001	
ARTXANDA	Hiri-sarbidea. La Salve – Ugazko	1,03	80	7 / 12	2002	
BALLONTI (BI-628)	Hiri-sarbidea. Balparda – Nocedal (Balparda – Nocedal. 2. fasea)	1,01	80	2x7 / 10,5	2005	
AZPIPROGRAMA: EDUKIERA HANDITZEA						
A-8	Gurutzetako lotura aldatzea (Santander – Errontegi/Kadagua)	-	-	-	2004	
A-8	Portuko loturaren eta Gallartaren artean hirugarren erreia egitea	1,71	80	2x10,5 / 14	2002	
BI-625	Hiri-sarbidea. Zaratamo – Arrigorriaga	-	-	2x7 / 10,5 2x10,5 / 14	2002	Eskuineko galtzada: 2 x 7,00 Ezkerreko galtzada: 2 x 7,00 / 2 x 10,50
BALLONTI (BI-628)	Balpardako lotura birmoldatzea (Nocedal – Balparda. 1. fasea)	-	-	-	2005	
PROGRAMA: EGOKITZAPENAK						
AZPIPROGRAMA: ELKARGUNEEN BERRANTOLAKETA ETA SARBIDEEN KONTROLA						
BI-623	Durangoko sarbidea – Izurtza	1,92	-	-	1999	
BI-623	Izurtzako sarbidea – Mañaria	1,98	-	-	1999	
PROGRAMA: HIRI BARNEKO SAIHESBIDEAK						
AZPIPROGRAMA: HIRI BARNEKO SAIHESBIDEAK						
N-240	Zeanuriko saihesbidea	1,64	80	7 / 10	2002	
N-634	Iurretako saihesbidea	0,95	80	7 / 10	2000	

Iturria: geuk egina, foru aldundien datuak oinarri hartuta.

2005EAN, PLANAREN XEDE DEN SAREAN EGITEN ARI ZIREN LANAK

LURRALDE HISTORIKOA: BIZKAIA

Errepidea	Jarduera	Luzera (km)	Proiektu- abiadura (km/h)	Zeharkako sekzioak (m)	Lanak amaitzeko epea	Oharrak
PROGRAMA: LAN NAGUSIA						
AZPIPROGRAMA: AZPIEGITURA BERRIAK						
N-240	Euskotreneko trenbide-pasagunea kentzea	-	-	-	2006	
BI-636	Kastrexana – Alonsotegi autobia (Kastrexana – Arbuio/Alonsotegiko saihesbidea)	4,69	80	2x7 / 10,5	2006	
BI-636	Alonsotegi – Sodupe autobia (Arbuio – Sodupe)	5,00	80	2x7 / 10,5	2007	
BALLONTI (BI-628)	Hiri-sarbidea. Axpe – Urbinaga (Carmen – Galindo)	0,73	80	2x7 / 10,5	2007	
BALLONTI (BI-628)	Hiri-sarbidea. Markonzaga – Portugalete (Markonzaga – Portugalete – Kuetu)	1,30	80	2x7 / 10,5	2006	
A-8	Segurtasuna Zaldibarko tuneletan eta Iurretako kontrol-gunean	0,60	-	-	2006	
AZPIPROGRAMA: GALTZADA BIKOIZTEA						
BI-636	Artxube-Zalla (2. fasea). (Padura – Aranguren)	5,80	80	2x7 / 10,5	2007	
BI-637	Mimenaga – Sopelana (2. fasea)	1,52	80	2x7 / 10,5	2006	
AZPIPROGRAMA: EDUKIERA HANDITZEA						
A-8	Basauri – Irubide artean hirugarren erreia jartzea (Plazakoetxe)	0,60	80	2x10,5 / 14	2007	
A-8	Galdakaoko lotura-erdia (hirugarren erreia Bengoetxe eta Galdakao artean)	-	80	2x14 / 17,5	2007	
A-8	Hirugarren erreia jartzea Urgoiti (El Gallo) eta Erletxeta artean	1,80	80	2x10,5 / 14	2007	
A-8	Hirugarren erreia jartzea Erletxeta eta Amorebieta artean (Erletxeta – Boroa)	6,04	80	2x10,5 / 14	2007	
A-8	Hirugarren erreia jartzea Montorra eta Iurreta artean	7,70	80	2x10,5 / 14	2007	
AZPIPROGRAMA: LOTURAK EGITEA ETA/EDO BERRANTOLATZEA						
N-240	Artea – Areatzan sarbidea jartzea	0	-	-	2006	

Iturria: geuk egina, foru aldundien datuak oinarri hartuta.

1999-2005- ALDIAN, PLANAREN XEDE DEN SAREAN EGINDAKO LANAK

LURRALDE HISTORIKOA: GIPUZKOA

Errepidea	Jarduera	Luzera (km)	Proiektu- abiadura (km/h)	Zeharkako sekzioak (m)	Lanak amaitzeko epea	Oharrak
PROGRAMA: LAN NAGUSIA						
AZPIPROGRAMA: AZPIEGITURA BERRIAK						
A-1	Vitoria-Gasteiz – Eibar autobidea: Arabako muga – Maltzaga (A-8aren lotura)	15,80	100	2x7 / 10,5		
	Bergara hegoaldea – Maltzaga (A-8 lotura)	12,50			2004	
	Arrasate – Bergara hegoaldea	3,30			2005	
N-I	A-8aren lotura: Aritzeta – Lasarte	1,50	100	2x7 / 10,5	1999	
N-636	Bergarako hego-ekialdeko saihesbidea	2,50	80	7 / 12	2002	
N-636	Ormaiztegi – Zumarraga ekialdea	7,00	80	2x7 / 10,5	2005	
GI-131	Hernaniko hego-ekialdeko saihesbidea (1. fasea)	2,50	80	7 / 12	2001	
AZPIPROGRAMA: GALTZADA BIKOIZTEA						
N-I	Etzegarateko mendatean bigarren galtzada eraikitzea	-	80	7 / 11	2003	
N-I	Idiazabalgo saihesbidea bikoiztea	-	80	2x7 / 10,5	1999	
AZPIPROGRAMA: EDUKIERA HANDITZEA						
A-8	Oiartzun eta Irungo Bentak artean hirugarren erreia egitea	5,00	80	2x10,5 / 14	2005	
PROGRAMA: EGOKITZAPENAK						
AZPIPROGRAMA: EGOKITZAPENAK						
N-634	Bide-sergurtasuna hobetzea Itziarko gainaren eta Elgoibarren artean (Mendaroko biribilgunea)	-	-	-	2003	
N-634	Azitain – Maltzaga bide-zatia egokitzea	1,22	80	7 / 10	2000	
GI-627	Epele – San Prudentzio bide-zatia egokitzea eta GI-2630 elkargunea aldatzea	1,30	60	7 / 10	2001	
AZPIPROGRAMA: ELKARGUNEEN BERRANTOLAKETA ETA SARBIDEEN KONTROLA						
N-634	Orioko gaina Aiako errepidearen elkargunea	-	-	-	1999	
GI-627	Eskoriatzan elkargunea egitea	-	-	-	2001	

Errepidea	Jarduera	Luzera (km)	Proiektu- abiadura (km/h)	Zeharkako sekzioak (m)	Lanak amaitzeko epea	Oharrak
AZPIPROGRAMA: ZEHARBIDEAK HOBETZEA						
N-I	Añorgako zeharbidea	-	-	-	2001	
N-I	Behobiako zeharbidea (biribilgunea)	0,30	-	-	2002	
N-634	Elgoibarko zeharbidea (Madalenako biribilgunea –KP: 57,000– eta Melitoneko zubia -KP:56,400–)	-	-	-	2003	
PROGRAMA: HIRI BARNEKO SAIHESBIDEAK						
AZPIPROGRAMA: HIRI BARNEKO SAIHESBIDEAK						
N-I	Errenteriako saihesbidea (1. fasea)	-	80	7 / 10	1999	

Iturria: geuk egina, foru aldundien datuak oinarri hartuta.

2005EAN, PLANAREN XEDE DEN SAREAN EGITEN ARI ZIREN LANAK

LURRALDE HISTORIKOA: GIPUZKOA

Errepidea	Jarduera	Luzera (km)	Proiektu- abiadura (km/h)	Zeharkako sekzioak (m)	Lanak amaitzeko epea	Oharrak
PROGRAMA: LAN NAGUSIA						
AZPIPROGRAMA: AZPIEGITURA BERRIAK						
A-1	Vitoria-Gasteiz – Eibar autobidea: Arabako muga – Maltzaga (A-8aren lotura) <i>Eskoriatza – Arrasate</i> <i>Arabako muga – Eskoriatza</i>	15,90	100	2x7 / 10,5	2007 2007	
GI-131	Urumeako autobia: Donostia – Martutene	1,20	60	2x6 / 7,7	2007	
GI-131	Urumeako autobia: Martutene – Hernani	3,80	80	2x7 / 10,5	2007	
PROGRAMA: EGOKITZAPENAK						
AZPIPROGRAMA: ELKARGUNEEN BERRANTOLAKETA ETA SARBIDEEN KONTROLA						
N-634	GI-638 errepidearen elkargunea egitea eta Deba ibaiaren gainean zubi bat eraikitzea	-	-	-	2006	
PROGRAMA: HIRI BARNEKO SAIHESBIDEAK						
AZPIPROGRAMA: HIRI BARNEKO SAIHESBIDEAK						
N-I	Pasaiako saihesbidea	2,20	80	2x10,5 / 14	2006	

Iturria: geuk egina, foru aldundien datuak oinarri hartuta.